



Ingurumen Estrategiaren
Agiria Salla 37.zk. 2004ko Iraila

ingurumena.net

Zure esku dago



Burdin Galdaketaren, Ez-burdinazko Galdaketaren eta Ez-burdinazko Metalurgiaren Sektoreko enpresek Garapen Iraunkorrari egiten dioten Ingurumen-ekarpena

2004-2006



Asociación de Fundidores
País Vasco y Navarra

**Burdin Galdaketaren,
Ez-burdinazko Galdaketaren
Sektoreko**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ERREALDE ANTOLAMENDU
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL
TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

Euskal Autonomia Erkidegoko Burdin Galdaketaren, ez-burdinazko Galdaketaren eta ez-burdinazko Metalurgiaren Borondatezko Ingurumen Akordioa sinatu dutenen iritzia da



“Garapen Iraunkorraren Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Estrategia 2002-2020 oso garrantzitsua izan da euskal ingurumen-politikan”

Sabin Intxaurre
Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu
eta Ingurumen Sailburua

Esparru geografiko eta administratibo guztietan onartzen da legeria tradizionala ez dela nahikoa eta ez dela nahikoa izan bere kabuz ingurumenaren arazoak konpontzeko. Errealitate hori kontuan hartuz, Administrazioarentzat ez du inolako zentzurik jarduera ekonomikoak eta ingurumenaren babesa bereizten jarraitzeak.

Administrazioek sormen handiagoa eduki behar dute eta merkatutik ikasi behar dute; horrez gain, ingurumenari loturiko helburu handizaleagoak edukitzea ahalbidetzen duten tresnak aplikatu behar dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoko industria-tradizioak presio eta eragin handiak sorrarazi ditu natur baliabideetan, baina gure herriak ahalmen teknologiko, ekonomiko eta berritzaile handia edukitzea ere ahalbidetu du.

90eko hamarkadatik gaurdaino, euskal industria aldatu egin da. Ingurunearekiko lehen baino askoz ere ardura handiagoa duen sektorea dela erakutsi du. 2001ko Ingurumenaren Diagnostikoaren arabera, industriaren sektoreak eman ditu aurrerapauso handienak ekoeraginkortasunean eta autoerregulazioko neurrien ezarpenean (kalitateko, ingurumenaren kudeaketako eta laneko osasuneko estandarrak eta arauak).

Gainera, euskal industria aitzindaria da berrikuntzaren kulturaren eta jakintza zientifikoa maila guztietan sustatzen. Horrez gain, eraginkortasunez moldatzen da fenomeno berrietara, esate baterako, globalizaziora, informazio-teknologiaren garapenera eta lehiakortasuneko eta ikerketa eta garapeneko ikuspegi berrietara.

Euskal industriaren sektoreak esparru egonkorra eta ez-loteslea eskatzen du, etorkizuneko lege-garapenei aurrea hartzeko aukera ematen diona, guztia etengabe berrikusi eta hobetzeko prozesu malgu eta adostuaren bidez epe ertainean planifikatuz.

Ildo horretatik, 2002ko ekainaren 4an “Garapen Iraunkorrerako Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Estrategia 2002-2020” onestea funtsezko urratsa izan zen Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politikan. Estrategia hori ezartzearen ondorioz, zerikusia duen eragile sozioekonomiko bakoitzak egin beharreko jarduerak hedatu egingo dira, eta tresna desberdinak erabiliko dira, ingurumen-estrategia horretan jasotzen diren helburu eta konpromisoak bete ahal izateko.

Helburu horiek betetzeko abian jarri den prozesua eragile guztiek erantzukizuna bere gain hartuz egin behar da, ingurumen-erantzukizuna guztien arteko kultura dela ulertuz. Kultura berri hori, besteak beste, Administrazioaren eta euskal sektore industrialen arteko Borondatezko Akordioaren bitartez gauzatzea nahi dugu.

Borondatezko Akordioek, beraz, jarduteko esparru gardena ezartzen dute eta, horrez gain, Administrazioei politika eta tresna legegile eta ekonomikoak bizkor eta modu errentagarrian ezartzeko aukera ematen die. Borondatezko Akordioek etekin kualitatibo garbiak ekar ditzakete, esate baterako, elkarriketarako eta lankidetzarako esparru egonkorra ezartzea enpresa eta administrazioaren artean, informazioa askoz ere gehiago partekatzea, enpresen sentikortasuna handitzea eta haien ingurumenaren kudeaketa hobetzea.



LURRALDE ANTOLAMENDU
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Urtzaileen Elkarte (AFV)

“Euskadiko galdaketaren sektorea dinamikoa da eta zabaltzen ari da. Gainera, gure instalazioak Europako ingurumen-araudira egokitzeko inbertsioak egiten ari gara pixkanaka”



Ignacio Sáenz de Gorbea
AFVko Zuzendari Nagusia

Dinamikoa izatea eta etengabe garatzen aritzea dira galdaketa-sektorearen ezaugarriak. Hala, lehen sektorekoa izatetik teknologia aurreratuko sektorekoa izatera pasatu da, beste herrialdeetara zabaltzen ari da eta nazioartean onespina du.

Euskadiko galdaketa-sektorearen barruan, 78 galdategi baino gehiago daude. Galdategi horietatik 34 Bizkaian daude, 27 Gipuzkoan eta 17 Araban, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Galdategien Elkartearen (AFV) bazkide dira guztiak. Estatuko galdaketa-sektorearen % 50 ordezkatzen dute, eta 8.498 pertsonari ematen diete lan.

AFVren produkzio-gaitasuna urteko 420.000 tonara iristen da. AFVren bazkide diren enpresa gehienak burdin galdategiak dira (produkzioaren % 73 eta 29 ordezkarri), burdinazkoak ez diren galdategiak dira ondorengoak (produkzioaren % 17 eta 30 enpresa) eta, azkenik, 19 dira altzairu moldatuen galdaketan lan egiten duten enpresak eta produkzioaren % 10 dute.

Automobilgintza-sektorea da enpresa horien bezero nagusia; hain zuzen, produkzioaren % 50 sektore horretara bideratzen da. Beraz, batetik, etengabeko hobekuntza-planak behar dituzten erosle handien hornitzailea da sektorea; eta, bestetik, prezioen igoeraren etengabeko presioa duten hornitzaileen bezero ere bada, eta produktibitatea etengabe haztea da horri aurre egiteko modu bakarra.

Azken urteetan galdategiek etengabe egokitu behar izan dute berrikuntza teknologikoei ekarri dituzten aldaketetara, kalitate-arauetara, presio sozioekonomikoetara (ingurumenari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauetara, adibidez). Horren eraginez, inbertsio handiko zikloak eta amortizazio azkarreko planak egin behar izan ditugu, eta arazoak izan ditugu gure produktuak merkaturatzeko, gure exijentzia-maila altuagoa baita Ekialdeko Europako eta Asiako herrialdeetan ditugun lehiatzaile nagusiek dutena baino.

Oztopo horiek izan arren, galdaketa-sektoreak nazioarteko merkatuetan eta eskakizun zorrotzenak dituztenetan sartzea lortu du. Merkatu horietara esportatzen dugu produkzioaren

% 50, eta, gainera, arlo guztietan jaso dugu gure lanaren aintzatespen ofiziala: berrikuntza teknologikoa, ingurumena, laneko arriskuen prebentzioa, industria-kalitatea...

Hainbeste dira aurre egin behar diegun eta gainditu behar ditugun oztopoak, ezen egunero gero eta eraginkorragoak izatera behartuta baikaude, bai produkzioaren alderdi guztietan eta, bereziki, ingurumenean. Hain zuzen, ingurumenaren arloan, etorkizuneko araudiari ere aurre hartu behar diegu, araudi berriek eskatzen dituzten inbertsioak direla eta. Horrek bultzatu gaitu Borondatezko Akordioak sinatzera, Administrazioarekin harremanetan egoteko aukera bikaina dela uste dugulako; izan ere, harreman horiek gure enpresei segurtasuna ematen diete legezko obligazioak betetzeari dagokionez.

Azken finean, uste dugu etorkizuneko lege-eskakizunei aurre hartzea erronka handia dela berez; baina erronka horrek, aldi berean, aukera emango digu geroz eta lehiakorragoa den merkatuan gainerako enpresetatik bereizteko. Gure ustez, enpresek eta langileek elkarrekin lan egitea da merkatu horri aurre egiteko modu bakarra.

1962an sortu zen Bizkaiko Urtzaileen Elkarte. Bizkaian tradizio handia zuen galdaketak, eta elkartearen helburua zen sektore horretako enpresek zituzten interes komunak aurkezte, kudeatzea eta defendatzea. Gerora, egoitza nagusiak Bizkaian jarraitu bazuen ere, elkarteak zabalduz joan zen, eta, hala, 1978an sortu zen Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Urtzaileen Elkarte.

Urte hauetan guztietan, gure sektorearen inguruan aritzen diren enpresek dituzten beharretara egokitzen saiatu gara. Bereziki, prestakuntza izan da beste enpresetatik bereizi gaituen ezaugarria, eta tresna hauek erabili ditugu: ikerketan eta garapenean egindako inbertsioak, produktuen eta prozesuen berrikuntza, kalitatea eta ingurumenari errespetua.



Asociación de Fundidores
País Vasco y Navarra

Hitzarmena sinatu duten enpresak



Galdaketaren Sektorea Euskal Autonomia Erkidegoan

Euskadiko Galdaketaren Sektorea ingurumen-araudira moldatu ditu produkzio-sistemak. Izan ere, teknologia, tresna eta kudeaketa-modu berriak gutxika sartu ditu, prestakuntza jarraitu eta etengabea jasotzen duten langileen bidez.

1992 eta 1993 ekitaldietan, 23 galdategik ingurumen-ikuskapenak egin zituzten, eta, horri esker, sektoreak ingurumenaren aldetik dituen lehentasunak zehaztu zituzten, batez ere, atmosferarako emisioei (labeak araztean jasotako harea xeheak), hondakin solidoei (moldaketako hareak eta harea xeheak) eta isuri likidoei dagokienez. Sentsibilizatzeko kanpaina hasi du sektoreak, ingurumena hobetze aldera.

1994tik hona, Hondakin Geldoak Kudeatzeko Planari jarraituz, Euskadiko galdategiei lagundu eta aholku eman diegu, haien hondakinak zabortegekin hobeto kudea dituzaten, bereziki, Hondakinak Kudeatzeko Ekimenak abian jartzean.

Sektoreko hondakinaren % 90 harea erabiliak zirela atzeman zenean, 1997 eta 2000. urteen bitartean, AFVk lankidetzako proiektu bat zuzendu zuen. Proiektu horretan, haren azpiproduktuak sortuta aurrezteko aukerak aztertu zituzten, hiru kontzeptu ardatz hartuta: minimizatzea, birsortzea eta berrerabiltzea.

Proiektu horren emaitza gisa, urtetik urtera, zementu-fabriketan moldaketako harea gehiago berrerabiltzen joan dira. Hala, 2003an, 12.500 Tn galdaketako hareari eman zitzaion balioa. Metalak berreskuratzea eta maskorreko moldaketako haren birsorte termikoa ere erabiltzen ditugu balioa emateko, eta, horien bidez, urteko 10.000 Tn-ri ematen zaio balioa kanpoan.

1998an, Ministerioak eskatuta, IPPC Zuzentarauak eragindako enpresen Teknologia eta Ingurumen Txostena egin zen, eta erabil daitezkeen teknika onenak aztertu ziren. 1999an, Ingurumen Ministerioak Europako Lan Taldearen ordezkari izendatu zuen AFV. Lan-talde hori Sevillan sortu zen, IPTSan, IPPC zuzentaraua forjaketan eta galdaketa-sektoretan aplikatzeaz eztabaidatzeko.

Badakigu Euskal Autonomia Erkidegoko galdaketen hondakinak sortzen dituzten ingurumen-arazoak hondakin asko eratzegatik gertatzen direla oro har (AFVko galdategiek

urtean 175.000 Tn hondakin geldo sortzen dute), eta, horregatik, 2001eko ekitalditik hona, arriskutsuak ez diren hondakinak modu integralean kudeatzeko instalazio bat sortzeko proiektuarekin dihardugu.

Instalazio horren xedea, lehenengo fasean, sektoreko birsortzea da, hartara, bigarren fasean, beste industria-sektore batzuetan birsortzeko eta berrerabiltzeko beste aukera batzuk gauza daitezten. Horri esker, galdategiek ez dute horrelako inbertsiorik egin behariko banaka; konpromiso hori Elkarte moduan sinatu dugu, Administrazioarekin hitzartutako Akordioan.

Ingurumena hobetzeko egiten ari garen ahaleginaren emaitza gisa, galdategiek azken urteotan egin dituzten inbertsio garrantzitsuak ditugu. Esaterako, 2000. urtean, Euskadiko Sektorean 15,5 milioi euro baino gehiago inbertitu dira ingurumen-gaietan. Lortu diren ingurumen-hobekuntzen artean, hauek nabarmenduko ditugu:

- *Moldaketako hareak berrerabiltzea* barne-berreskuratzeke eta birsortzeko instalazioen bidez. Lehengaien kontsumoa murriztu da.
- *Atmosferarako emisioak murriztea*, energia garbiagoak erabiltzearen eta gasak bildu, iragazi eta arazteko sistemetako inbertsioen ondorioz.
- *Teknologia garbiagoak ezartzea*: Kubilote-labeen ordez indukzio-labeak jartzea.
- *Hondakin geldoak balioa ematea*, isuriaren alternatibak erabiliz. Beste industria-sektore batzuetan berrerabiltzea.
- *Industria-hondakinak murriztu eta ezabatzea*, hondakin-urak tratatzeko instalazioak jarrita eta zirkuitu itxiko uren instalazioetara aldatuta.
- *Ingurumen-kudeaketako sistemak ezartzea*. IPPC instalazioen % 35ek ISO 14000 egiaztatzea dute. Dagoeneko % 5ek EMAS ziurtagiria dute.

Bestalde, azpimarra dezagun galdategietan metal-hondakinak birziklatzen ditugula, eta, horri esker, gizarte-kostu handia aurrezten dela. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, urtean 300.000 Tn txatar baino gehiago birziklatzen da.

Burdin Galdaketaren, ez-burdinazko Galdaketaren eta ez-burdinazko Metalurgiaren Sektoreak ingurumenean duen eragina Euskadiko Autonomia Erkidegoan


2002ko Ingurumen Diagnostiko Sektorialak eta 2002ko emisio eta isurketen datuei buruzko lehenengo EPER txostenaren emaitzen azterketak haren ondorioak akordioa lortzeko oinarri izan dira adierazten dutenez, hauek dira **Burdin Galdaketaren, ez-burdinazko Galdaketaren eta ez-burdinazko Metalurgiaren Sektorearen** ingurumen-presioak Euskal Autonomia Erkidegoan:

- **Airerako emisioak**: Sektore honetan egiten diren partikula-emisioak Euskal Autonomia Erkidegoan egindako EPER-Euskadi 2003 inbentarioko guztizkoaren % 17 dira. Era berean, Kloroa eta kloroaren konposatu ez-organikoak atalari dagokionez, EPE-Euskadi 2003 inbentarioan jasotako airerako emisioen % 17 igorri du sektore honek (Iturria: EPER inbentarioa. 2002ko datuak).
- **Hondakin ez-arriskutsuak**: Euskal Autonomia Erkidegoan sortzen diren hondakin ez-arriskutsuen %14,2 dira (Iturria: 2003ko Ingurumen Adierazleak).


Adierazle horiek hobetzeko beharrezkoa da prozesuen eraginkortasuna optimizatzeko ahalegin handia egitea, baita ingurumena gehiago zaintzen duten teknologia berrien garapena eta ezarpena ere, teknologia-berrikuntzako prozesu jarraituaren bidez. Izan ere, hori guztia oinarritzkoa da merkatu zorrotzetan sektorearen lehiakortasuna mantentzeko.

Sektoreko enpresek sinatutako akordioak agerian uzten du enpresa horiek lehentasunezko ingurumen-gaietan hobetzeko konpromisoa dutela, eta garapen iraunkorraren alde egiten dutela.

Euskal Autonomia Erkidegoko Galdaketa-sektoreko Ziurtagiriak



Euskal Autonomia Erkidegoko Galdaketa-sektorearen ingurumen-inbertsioen banakapena (2000. urtea)





Euskal Autonomia Erkidegoa garapen iraunkorrerantz: Garapen Iraunkorraren Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Estrategia (2002-2020)

Euskal Autonomia Erkidegoan “garapen iraunkorra” kontzeptua arau-izaerarekin ingurumena babesteko lege orokorrean jaso zen lehenengo aldiz (otsailaren 27ko 3/1998 legean). Ordudanik, kontzeptu horrek adierazten dituen printzipioak lortzeko egin den aurrerapauso handiena “Garapen iraunkorraren Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-estrategia (2002-2020)” sortzea izan da. Dokumentu horretan uskal Autonomia Erkidegoak epe luzean dituen ingurumen-helburuak jasotzen dira, bai eta “iraunkortasuna” delakoa lortzeko bete beharreko helburu, estrategia-ildo eta konpromisoak ere.

Garapen iraunkorra, iraunkortasuna. Termino hauekin honakoa adierazi nahi da: euskal gizarte osoak ingurumenerako eta gizarterako lortu behar dituen hainbat xede ezartzea, oraingo belaunaldiarentzat bizi-kalitate ezin hobea bermatu ahal izateko, etorkizuneko belaunaldien ongizatea arriskuan jarri gabe.

Helburu orokor hori betetzeko, ezinbestekoa da gizarteko eragile guztien laguntza: industriakoena, ekonomikoena, sozialena. Euskal industriaren baterako parte-hartze hori “Garapen iraunkorraren Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-estrategia (2002-2020)” dokumentuan jasotako konpromiso batzuetan zehazten da, esate baterako, euskal administrazioak lehenik IPPC 96/61 arteztarauaren eraginpean dauden industria-sektoreekin borondatezko akordioak sinatzea eta, ondoren, baita gainerako industria-sektoreekin ere.

Borondatezko Ingurumen Hitzarmenak: Burdin Galdaketaren, ez-burdinazko Galdaketaren eta ez-burdinazko Metalurgiaren Sektoreko 35 enpresen sinadura elektronikoa (40 instalazio)

Burdin galdaketaren, ez-burdinazko galdaketaren eta ez-burdinazko metalurgiaren sektoreak borondatezko hitzarmena sinatu zuen 2004ko urrian, Bilbon antolatutako ekitaldi publiko batean. Horrekin, sei dira, dagoeneko, Euskal Autonomia Erkidegoan borondatezko hitzarmena sinatu duten sektoreak –zementugintza, sektore kimikoa, altzairugintza eta oregintza/papergintza/kartoigintza eta hondakin arriskutsuen kudeaketaren sektorea–. Sektore horietako ehun bat enpresek hartu dute prozesuak ingurumenaren ikuspegitik hobetzeko konpromisoa eta ingurumen-legeak betetzeko epeak aurreratzeko konpromisoa –eta legeak eskatzen dituenak gainditzeko konpromisoa ere hartu dute–.

Borondatezko akordioek hiru helburu dituzte:

Lehenik eta behin, enpresa sinatzaileen emisio eta isurketak optimizatzea, hondakinak minimizatzea edota haien balorizazioa areagotzea; bigarrenez, ISO 14001 edo EMAS ingurumen-kudeaketako sistema baten bidez ziurtatzea; eta, azkenik, Prebentzio eta Kontrol Integraturako Zuzentarauan (IPPC 96/61 Arteztaraua) eta hura egokitzen duen 16/2002 Legean proposatutako helburuak lortzea.



Enpresa bakoitzak zuzenean sinatzen ditu borondatezko hitzarmenak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu Ingurumen Sailarekin, eta horietan ezartzen dira erakunde bakoitzak lortu beharreko ingurumen-helburuak, hitzarmenaren segimendua egiteko adierazleak eta Administrazioaren beraren ordain-ematea. Segimenduko adierazleak hiru motakoak dira: banakakoak, sektorekoak eta lurraldekoak. Horri esker, helburuen lortze-maila ikuspegi desberdinetatik ebaluatu daiteke.

Akordio hauen gakoetako bat hauxe da: bai enpresek eta bai administrazioak legeriak eskatzen duena betetze hutsa baino haratago iristea nahi dutela. Horretarako, enpresak eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila elkarlanean hasi dira, eta bat etortzeko nahiz proposamenak trukatzeko giro aparta sortu da alde bientzat. Akordioak erreferentzia-esparru egonkorak bihurtuko dira enpresentzat epe luzean.





Euskal Autonomia Erkidegoko Burdin Galdaketaren, ez-burdinazko Galdaketaren eta ez-burdinazko Metalurgiaren Sektorearen ingurumen-helburuak


Borondatezko Akordio honetarako hainbat helburu finkatu dira, bi aldeek sektorearen egoera aztertzeke egin duten diagnostiko xehatuaren ondorioz. Halaber, helburu horiek zehazteko “Garapen Iraunkorren Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Estrategia (2002-2020)” dokumentuak jasotzen dituen proposamenak ere aintzat hartu dira. Helburu bakoitza xehetasunez zehazten da, eta ezartzeko epeak eta betetzeko egin behar diren ekintzak azalduta daude.

Euskal Autonomia Erkidegoko Burdin Galdaketaren, ez-burdinazko Galdaketaren eta ez-burdinazko Metalurgiaren Sektorearen ingurumen-helburuak

HELBURUAK	ZER ESAN NAHI DU?	ZERTARAKO BALIO DU?
Sektoreak sortutako hondakinen kudeaketa hobetzea.	Hondakinen balorizazioa areagotuta, hondakinen egungo kudeaketa optimizatzea.	Hondakinak isurtzea eta ingurumenari eragin diezaieten saihestea, hondakinak beste prozesu batzuetan aprobetxatuz.
Hondakin geldoak berreskuratzea, sektorean berriro erabiltzeko.	Galdaketako hondakin geldoak kudeatzeko instalazioa martxan jartzea, hondakinak sektorean berriro erabiltzeko.	Hondakinak isurtzea eta ingurumenari eragin diezaieten saihestea, hondakinak sektorean bertan aprobetxatuz.
Zaraten sorrera zaindu, kontrolatu eta murriztea.	Sortzen den zarataren zaintza areagotzea eta zarata murrizteko neurriak ezartzea.	Instalazioen inpaktua murriztea, inguruneari eta osasunari egindako kalteak gutxituz.
Lurraren poluzioa prebenitzea.	Lurraren poluzioa prebenitzeko, kontrolatzeko eta horren jarraipena egiteko neurriak hartzea.	Lurra kaltetzeko arriskua minimizatzea, ekoizpenean zein biltegitratzean.
Airerako eta uretarako emisioak zaintzea, kontrolatzea eta murriztea.	Isuritako poluitzaileen zaintza areagotzea eta poluitzaileak murrizteko neurriak ezartzea.	Gure airearen eta uraren kalitatea hobetzea eta ingurumeneko eta osasuneko kalteak murriztea.
IPPCaren eskakizunak betetzeko modua erraztea eta prestatzea (BREF aplikatzeko gida teknikoa, Ingurumen Baimen Integratua) eta IPPC 2007. urtea baino lehen ezartzea.	“Poluzioa Prebenitzeko eta Kontrolatzeko Lege Integratua” enpresei egiten dizkien eskakizunei eta ingurumenean kalterik handiena egiten duten industria-sektoreetan aplikatzen diren eskakizunei aurrea hartzea.	Ingurumeneko legedi horretako eskakizunei aurrea hartzea.
Nazioarteko ISO 14001 arauaren edota EMAS araudiaren araberako kudeaketa-sistema garatzea eta ezartzea.	Enpresei ingurumenean duten eragina etengabe ezagutu, aurreikusi eta minimizatzeke aukera emango dien kudeaketa-sistema bat ezartzea eta kanpoko eragile batek egiaztatzea.	Erakundeen eraginak murriztea etengabeko hobekuntza-prozesuaren barruan.
GRIren irizpideen araberako iraunkortasun-memoriak publikatzea.	Erakundeen ingurumen-portaerarekin, portaera sozialarekin eta ekonomikoarekin zerikusia duten alderdiak jakinaraztea gizarteari.	Informazioaren gardentasuna eta ingurukoekiko elkarriketa abiaraztea sustatzeko.

Burdin Galdaketaren, ez-burdinazko Galdaketaren eta ez-burdinazko Metalurgiaren Sektoreak “Garapen Jasangarriaren Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Estrategia 2002-2020” betetzeko emandako laguntza

Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen-estrategia 2002-2020



Borondatezko hitzarmen honen funtsezko alderdietako bat da enpresa sinatzaileek eta Euskal Administrazioak osatutako Jarraipenerako Batzordeak aldizka hitzarmena ikuskatuko duela, egon daitezkeen arazoak antzemateko eta aukera berriak aprobeitzatzeko helburuarekin. Horretarako, bi aldeek behar diren baliabide guztiak ezarriko dituzte elkarriketa ireki eta irmo baten esparruan.





Etorkizunari begira: Burdin Galdaketaren, ez-burdinazko Galdaketaren eta ez-burdinazko Metalurgiaren Sektorea nolakoa izango den 2006an

- Euskal Autonomia Erkidegoko burdin galdaketaren, ez-burdinazko galdaketaren eta ez-burdinazko metalurgiaren sektoreak ingurumen-baimen integratu egokiak izango ditu Borondatezko Akordioa sinatzen duten instalazioentzat. Horrela, Europako industria-instalazio handiei eskutatuko ingurumen-baldintza guztiak beteko dira (hondakinak, emisioak, isurketak...).
- Sektoreak gaur egun zabortegira botatzen diren hondakinen kopurua gutxitua izango du, hondakin horiek berreskuratuz, galdaketako hondakin geldoak berrerabiliz eta beste jardue- ra batzuetan lehengai gisa balioa emanez.
- Sektoreak zarata kontrolatzeko mekanismo gehienak ezarrita edukiko ditu eta zaratagutxitzeko neurriak ere hartuta edukiko ditu.
- Sektoreak aurrerapausoak eginak izango ditu atmosferarako emisio barreiatuak eta konfi- natuak gutxitzeko, emisio horiek hartzeko eta arazteko sistema aurreratuen bidez.
- Sektoreak, oro har, ingurumena kudeatzeko sistema bat ezarri eta ziurtatuko du, eta sistema horrek ingurumen-portaera etengabe hobetzeko bitartekoak sendotuko ditu. Horrez gain, aurrera egingo du ingurukoekiko komunikazioan, ingurumen-adierazpenak eta iraunkorta- sun-memoriak publikatuz.



Helbide ingeresgarriak

- <http://www.ingurumena.net>
- <http://www.ihobe.net>
- <http://www.nrg4sd.net>
- <http://www.eea.eu.int/>
- <http://europa.eu.int/comm/environment/ipp/>
- <http://www.aclima.net>
- <http://www.feaf.es>
- <http://www.caef-eurofoundry.org>
- <http://www.jgp.ch/wfo>
- <http://www.tecnalia.info>
- <http://www.diecasting.org>
- <http://www.metalspain.com>
- <http://www.eper-euskadi.net>
- <http://www.aec.es/>
- <http://www.ecosmep.com/>
- <http://www.citma.net>
- <http://www.inem.org/>
- <http://www.epa.gov>

Borondatezko Hitzarmenen Idazkaritza Teknikoa